

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Facundo Garai Txintxurreta

*Arrasate
Gipuzkoa (1931)*

Aurkibidea



Biografia



Bedoña auzoko Iturriaga baserrian jaio zen 1931n. Aita Iturriaga bertakoa zuen eta ama Aretxabaletako Isurieta auzoko Aldekoa baserrikoa. Hamar anai-arreba ziren. Bedoñako abade etxeko eskolan hasi zen eskolan, Don Fermin Fernandez de Arroiabe gatzagar maisuarekin. Gero Aretxabaletako eskolan ibili zen Don Isidro Etxeberria maisu zela. Hamar urterekin eskola utzi eta etxean geratu zen lanean. 24 urterekin txofergintzan hasi zen. Sei urte geroago, "Roneo"-tik pasatuta, "Talleres Arrasate"-n egin zuen lan fresadore modura. Bere azkenengo zortzi lan-urteak "Fagor Electrónica"-ko biltegian eman zituen. Iruratik Zerrajerara lanera etorritako Mari Carmen Elizaranekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-066

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ARR-067

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-06-15
- **Iraupena:** 10 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Soldaduak etxean; eskolako kontuak

- **Erref:** ARR-066/002
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:01:50. **Bukatu:** 00:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

Soldaduek alde egin eta gero, eskolan dotrina ikasten hasi zen Leintz Gatzagako don Fermin Fernandez de Arroiaberekin. Katona eta kontuak egiten ere ikasi zuen. 100 soldadu inguru egon ziren etxeko aterpe batean hamar bat egunean.

2. Ganaduekin etxetik irten behar

- **Erref:** ARR-066/005
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Soldaduek etxetik irteteko agindu zieten, eta Oñatiko Urzabal baserrira joan behar izan zuten astebeterako, ganaduak hartuta. Aita basoan gordeta egon zen, baina osabak frontean ibili ziren.

3. Eskolara oso gutxi joan zen

- **Erref:** ARR-066/006
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:11:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Facundo zen anaiarik zaharrena. Eskolara joateko aukera handirik ez zuen izan, etxean lan asko zegoelako. Gorriak Kanpazartik Bilbo aldera joan ziren.

4. Esnea banatzen zuen eskolara joan aurretik

- **Erref:** ARR-066/008
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:13:19. **Bukatu:** 00:16:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Lehenengo jaunartzearen ondoren, Aretxabaletan jarraitu zuen eskolan. 50 mutiko inguruk ikasten zuten gela batean, hiru adin-taldetan banatuta. Eskolara joan aurretik, etxetik astoan eramandako esnea banatzen zuen.

5. Bedoña auzoa udalerriz aldatu zenekoa

- **Erref:** ARR-066/009
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:16:17. **Bukatu:** 00:19:21

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Orduan Bedoña auzoa Aretxabaletako udalerrian zegoen. 50eko hamarkadan udalak Bedoñatik errepidea egiteko dirurik ez zuen eman. Arrasateko udalak egin zien errepidea eta udalerriz aldatu zen orduan Bedoña.

6. Bedoñatik Arrasateko eskolara

- **Erref:** ARR-066/010
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:19:21. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Arrasatera pasatu zirenetik Bedoñako neska-mutilak Arrasaten eskolatu izan dira. Auzoko zaharrenak ez omen zeuden erabat ados, baina Arrasaten geratu zen Bedoña, errepidearen truke.

7. Eskola utzi eta etxera lanera

- **Erref:** ARR-066/011
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:25:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Hamar urterekin eskola utzi eta etxean geratu zen lanean. Idiak ere bazituzten etxean. Aita "karretero" lanean ibili zen, egur garraioan. Umeak amarekin egoten ziren etxeko lanak egiten, soroan edo ganadua eta beste abereak zaintzen.

8. Errotak itxita egon zirenekoa

- **Erref:** ARR-066/012
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:25:09. **Bukatu:** 00:28:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errotak prezintatu zituztenean, Oñatiko Araotz auzora ere joaten ziren garia ehotzera. Arabatik garia eta patatak estraperloan ekartzen zituzten, gauez. Etxeko gari, arto eta babarrun ekoizpenaren zati bat udalari eman behar izaten zitzaion.</p>

9. Oñatiko Araotz auzora garia ehotzera

- **Erref:** ARR-066/013
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:28:12. **Bukatu:** 00:30:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Arrasate, Uribarri eta Marulandako errota prezintatuta eta zainduta egoten zirenez, Oñatiko Araotz auzoko errota joan behar izaten ziren.

10. Garia baino arto gehiago etxean

- **Erref:** ARR-066/015
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:34:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Arrasate Okindegiko errota garia besterik ez zuten ehotzen. Artoa ehotzera Marulandara eta Bolinagako errota joaten ziren. Kupo entregatu ondoren, etxean arto gehiago geratzen zen garia baino.

11. Bedoña auzoko jaiak

- **Erref:** ARR-066/016
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:34:07. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Bedoñak Arrasatera pasatu zenetik, Aretxabaletan ez zituztenez ondo ikusten, erromerietara-eta Arrasatera joaten hasi ziren bedoñak. Santa Eulaliatan ospatzen dituzte auzoko jaiak. Auzoko mutilak bi kuadrillatan banatuta zeuden, eta bakoitzak bere erromeria izaten zuen. "Aramaitako" (ave Mariatako) kanpaiak gauero jotzen zituzten.</p>

12. Deguriako artzainak

- **Erref:** ARR-066/018
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:39:35. **Bukatu:** 00:43:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Deguria mendian artzain asko zeuden garai batean. Gaztak egiteaz gain, txerriak hazten zituzten artzainok. Kurtzebarrin Piloto ezizeneko Bedoñako artzaina egoten zen.</p>

13. "Malbe"ri buruzko pasadizoak

- **Erref:** ARR-066/019
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

"Malbe" Bedoñako pertsonaia ezagunaren kontu batzuk azaltzen dizkigu Facundok.

14. Malbetarrak eta "Viuda Alegre"rena

- **Erref:** ARR-066/021
- **Iraupena:** 0:05:58. **Hasi:** 00:47:08. **Bukatu:** 00:53:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

"Malbe" eta bere inguruko beste kontu batzuk.

15. Irurar batekin ezkondu zen

- **Erref:** ARR-066/022
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:53:06. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Tolosaldeko Iruratik Zerrajerara lanera etorritako emakume batekin ezkondu zen Facundo. Lau seme-alaba dituzte. Nahiz eta etxetik kanpo lan egin urte askoan, oraindik ere badute ganadua etxean.

16. Umetako jolasak: txirikiletan, take-torreka...

- **Erref:** ARR-066/023
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:55:40. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Txirikiletan, take-torreka, astoari buztanean poteak lotuta eta horrelako jolasak egiten zituzten. Uda denboran Txaretara joaten ziren igeri egitera.

17. Jolasak, erromeriak eta bekatuak

- **Erref:** ARR-066/025
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:57:35. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Aretxabaleta eta Oñatiko mugako Txareta errekan egiten zuten igeri. Elizako horman pilotan egiten zuten. Gaztetxotan kalera Aretxabaletara joaten ziren; mutiltzen hasi zirenean, ordea, Arrasatera. Dantza egiteagatik erreal bat ordaintzen zuten gau osorako (mutilek bakarrik). Abadeen bekatu-mehatxupean bizi izan ziren gaztetan. Hijas de María eta luistarren kongregazioak ez omen zeuden oraindik hedatuta Facundoren lagunartean.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com